

rekalde



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia

Mendia gaz

**bilbao
mendi**
film festival
13-22 december 2013

Mendi Film Festival, mendiko eta abenturazko nazioarteko zinemaldiaren sekzioetako bat da **MendiaGAZ**. Abenduaren 12tik 22ra izango da zinemaldia Bilbon.

Aipatutako sekzioaren barnean, abenduaren 10etik 22ra gazteek eta DBHko bigarren zikloko ikasle taldeek aukera izango dute beraiei zuzendutako hainbat proiektioz gozatzeko.

Interesa duten taldeek aukera dute **Rekalde** aretoko emanaldi hauetarako bisita erreserbatzeko eta hautatutako bost film laburrez gozatzeko. Emanaldiak ordubete inguruko iraupena izango du.

Adiskidetasuna, talde-lana, naturarekiko errespetua eta norberaren gozamena lortzeko beste helbururik gabe saiatzearen kultura sustatzen dira gazteentzako film hauetan, umorez eta gure herrian ezohikoak diren ikus-entzunezko formatuetan.

Filmak jatorrizko bertsioan proiektatuko dira, ingelesez eta portugesez, euskarazko azpidatziekin.

Emanaldien ordutegia:

10:30etik 11:30era

12:00etatik 13:00etara

Hitzordua finkatzeko deitu 944068707 zenbakira edo idatzi mezu bat helbide elektroniko honetara, gaian MendiaGAZ zehaztuta: salarekalde@bizkaia.net

FILM LABURRAK

Mendia gaz

1.



URUCA

BRASIL, 2008 Iraupena: 8'
Zuzendaria: Erick Griforovski

Igande goiz perfektua da eskaladarako. Río de Janeiroko Pan de Açúcar horman biderik gogor eta desiratuenetakoa eskalatzen saiatuko da Hugo: "Uruca" Bidea ikaragarri zaila da eta oso-oso arriskutsua; beraz, eskalatzaileak barnean duen guztia eman beharko du, eta erabat kontzentratuta eskalatu

2.



ENTRE NÓS

BRASIL, 2010. Iraupena: 15'
Zuzendaria: Erick Griforovski

Animazio honek, Luisa izeneko nerabe batek Aurelio aitarekin egiten duen mendi irteera bateko drama kontatzen digu. Esperientzia handia izan arren eskalatzen, igoeran huts handia egiten du eta ehunka metrotako erorikoa jasaten du. Bakarrik, erabat isolatuta eta izotzezko ekaitzaren azpian, Luisak bere indar eta esperientzia guztia bildu beharko ditu arazoari behar bezala aurre egiteko.

3.



ROCK WALL CLIMBING


AEB, 2013. Iraupena: 4'47"
Zuzendariak: Jason Houston & Hal Clifford

Kathrin Houstonek, zortzi urte doidoi, eskalatzeko horma bat eraikiko du Coloradoko (AEB) bere etxe berriaren garajea.

FILM LABURRAK

Mendia
gaz

4.



PAPER SHREDDER

AEB, 2013. Iraupena: 2'19"

Zuzendaria: Paul Gemignani & Stephen Gemignani

Abentura berezi honetan, lagun baten etxea jaitsiera on bat bihurtuko dute snowboard zaleek.

5.



ORIGINS: OBE AND ASHIMA

AEB: 2011. Iraupena: 22'

Zuzendaria: Josh Lowell

New Yorkeko bederatzi urteko neskatila bat sekulako zalaparta sortzen ari da boulderraren munduan. Ashima Shiraishi da bere izena. Obe Carrion entrenatzaile grinatsuagidari duela, maistra txikitxo haulehiaketa guztiak menderatzen ari da eta eskaladaren gaztetasunari loturiko muga guztiak gainditzen. Obek boulderreko proba-eremu handienetakora eramango du Ashima, Hueco Tanks-era, TX. Obek berak han eman zuen jauzia duela 13 urte, boulderraren jatorrietan, eta Ashimak, harri eta zur utziko ditu denak.